



BIDEOGRAFIA LINGUISTIKOA

Irakaslearentzako gida didaktikoa

Enara Bellosa Bermúdez

Aurkibidea

1. SARRERA.....	2
2. IKAS-EGOERAREN GIDA.....	2
3. CURRICULUM-ARGUDIAKETA.....	4
4. SAIOEN GIDA, IRAKASLEENTZAT.....	13
1. SAIOA. HIZKUNTZA-ANIZTASUNA.....	13
2. SAIOA. HIZKUNTZA-UKIPENA.....	18
3. SAIOA. HIZKUNTZAREN TAMAINA.....	22
4. SAIOA. HIZKUNTZAREN FUNTZIO SOZIALAK.....	23
5. SAIOA. HIZKUNTZAREN ZABALKUNDEA ETA HIZKUNTZARI EUSTEA.....	27
6. SAIOA. EUSKARAREN ERREALITATE LINGUISTIKOA.....	32
7. SAIOA. EUSKARA BATUA.....	34
8. SAIOA. EUSKALKIAK.....	39
9. SAIOA. HIZKUNTZAREN ERABILERA INKLUSIBOA.....	40
10. SAIOA. SORTU BIDEOGRAFIA LINGUISTIKOA.....	41
4. IKASLEENTZAKO MATERIALA, SAIOKA.....	49
1. SAIOA. HIZKUNTZA-ANIZTASUNA.....	49
2. SAIOA. HIZKUNTZA-UKIPENA.....	52
3. SAIOA. HIZKUNTZAREN TAMAINA.....	53
4. SAIOA. HIZKUNTZAREN FUNTZIO SOZIALAK.....	54
5. SAIOA. HIZKUNTZAREN ZABALKUNDEA ETA HIZKUNTZARI EUSTEA.....	54
6. SAIOA. EUSKARAREN ERREALITATE LINGUISTIKOA.....	55
7. SAIOA. EUSKARA BATUA.....	56
8. SAIOA. EUSKALKIAK.....	60
9. SAIOA. HIZKUNTZAREN ERABILERA INKLUSIBOA.....	61
10. SAIOA. SORTU BIDEOGRAFIA LINGUISTIKOA.....	62
6. WEBGRAFIA.....	67

1. SARRERA

Datozen orrialdeetan, DBHko 2. zikloko ikasleei zuzendutako ikas-egoeraren gida aurkezten dugu. Ikas-egoera honen xedea da Euskal Herriko eta inguruneko errealitate elebiduna eta eleaniztuna ezagutzea, interpretatzea eta baloratzea. Horretarako, ikasleei soziolinguistikako oinarrizko kontzeptuak azalduko zaizkie, hizkuntza-aurreiritziak ekiditeko hausnarketa egingo dute, eta ikus-entzunezko ekoizpen bat egingo dute, euren familia zein inguruneko errealitate linguistikoa hobeto azter eta uler dezaten.

Ikasmaterial honek 3 sail nagusi ditu: batetik, “Ikas-egoeraren gida” eta “Curriculum-argudiaketa” (bi atal horietan ikasmaterial honen oinarri didaktikoak ezartzen dira); bestetik, “Saioen gida, irakasleentzat” atala, eta, azkenik, “Ikasleentzako materiala, saioka” atala. “Saioen gida, irakasleentzat” atalean irakasleak eman beharreko azalpen teorikoak agertzen dira, baita ikasleentzako ariketak eta erantzunak ere. “Ikasleentzako materiala, saioka” atalean, aldiz, ariketak agertzen dira soilik. Gainera, irakasleentzako jarraibideak, argibideak eta ariketen erantzunak urdinez adierazi dira.

2. IKAS-EGOERAREN GIDA

Inplikaturiko ikasgaiak: Euskara eta Euskal Literatura, Gaztelania eta Literatura eta Balio Zibiko eta Etikoak

Saio kopurua: 55 minutuko 9 saio

Ikas-egoeraren markoa

A. Testuingurua

Euskal gizarteko hizkuntza ofizialak euskara eta gaztelania badira ere, bistakoa da bi hizkuntzak ez daudela maila berean. Hainbat arrazoi historiko direla eta, gaztelania euskara baino zabalduago dago. Jakin badakigu hizkuntza-ordezkapenaren prozesua azkarra izan daitekeela, belaunaldi batean hizkuntza gal daitekeela, baina gure ardurak da neurri eraginkorrak hartzea hori gerta ez dadin: hizkuntzaren ezagutza bermatzea, erabilera sustatzea eta prestigioa ematea, besteak beste.
--

Kontuan hartu behar da, gainera, gure errealitatea gero eta askotarikoagoa dela, eta egun kaleetan hizkuntza ofizialez gain beste hainbat hizkuntza ere entzun daitezkeela.

Ikasgeletan ere nabaria da ikasleen errealitate linguistikoa gero eta askotarikoagoa dela. Horregatik, hizkuntza-saioetan ikasleen hizkuntza-aniztasuna aintzat hartu beharko da, hizkuntza-aurreiritziak saihesteko eta hizkuntza-aniztasunari esker sortutako askotariko kultura-adierazpenak baloratzeko.

B. Abiapuntua

Gaur egungo euskal gizartea eleaniztuna dela badakigu, baina zer dakigu inguruan ditugun hizkuntzei buruz? Nola transmititu dira hizkuntzak historian zehar? Zergatik erabiltzen ditugu hizkuntza batzuk beste batzuk baino gehiago? Batzuetan, gure iragana berrikustea ezinbestekoa da, egungo egoera ulertzeko eta etorkizuna irudikatzeke. Bada, horretarako modurik onena gure ingurune hurbila aztertzea izango da. Zer egin dezakegu gure familiaren errealitate linguistikoa ezagutzeko?

C. Azken ekoizpena

Ikasleei ikus-entzunezko lan bat egitea proposatuko zaie, euren familiako hizkuntza-errealitatea, hizkuntzarekiko euren bizipenak eta gertuko erreferenteak ezagutzeko: bideografia linguistikoa, alegia. Gainera, unitatean zehar ikasi dituzten soziolinguistikako oinarrizko kontzeptuak ekoizpenean aplikatzea ere eskatuko zaie.

Proposamenaren justifikazioa

A. Proposamenaren xedea: ikas-egoera honen bidez, ikasleek munduan dauden hizkuntzen berri izango dute (hizkuntzen tipologia, jatorria, hiztun-kopurua...)

B. Curriculum-argudiaketa

(Ikus 4. orrialdeko taula)

C. Helburu didaktikoak

- Euskal Herriko, inguruneke eta munduko hizkuntza- eta dialekto-aniztasuna ezagutzea.
- Oinarrizko soziolinguistikako kontzeptuak ezagutzea.
- Euskararen egungo egoera soziolinguistikoa ezagutzea eta horri buruzko hausnarketa egitea.
- Hizkuntza gutxituen defentsa bultzatzea.
- Hizkuntza-aurreiritziei aurre egiteko hausnarketa interlinguistikoa piztea.

- Euskararen erabileraren aldeko jarrera proaktiboa sustatzea eta euskal kulturaren aberastasuna ezagutzea.
- Euskarazko ahozko komunikazioa indartzea.
- Modu aktibo eta egokian parte hartzea ahozko egoera formal eta informaletan.
- Sareetan informazio fidagarria hautatzea eta modu kritikoan aztertzea.
- Ahozko testuen eta testu multimodalen zentzu orokorra eta egitura interpretatzea.
- Ikus-entzunezko testu koherente eta kohesionatua sortzea.
- IKTak modu eraginkorrean erabiltzea.

3. CURRICULUM-ARGUDIAKETA¹

Funtsezko kompetentziak eta deskriptoreak	Kompetentzia espezifikoak	Ebaluazio-irizpideak	Oinarrizko jakintzak
HKK1, HKK5, KE2, KE3, KD1, KD2, HK3, KAKK1, KAKK2, KAKK3.	1.Euskal Herriko eta inguruneko errealitate elebiduna eta eleaniztuna ezagutzea, interpretatzea eta baloratzea, bertako hizkuntzen eta barietate dialektalen ezaugarriak eta garapena aztertuz eta horiekiko guztiekiko portaera	1.1. Euskal Autonomia Erkidegoko hizkuntza koofizialak eta beren barietateak eta Espainiako beste hizkuntzak ezagutzea eta baloratzea, haien jatorriaren azalpenetik eta haien garapen historiko eta soziolinguistikotik abiatuta, hizkuntza horien alderdiak kontrastatuz, euskararen eta gaztelaniaren dialektoen ezaugarriak	Hizkuntzei eta hiztunei buruzko kontzeptu soziolinguistikoak. - Norberaren hizkuntza-biografia eta ikastetxeko eta herriko hizkuntza-aniztasuna aztertzeke jarraibideak. - Hizkuntzen Portfolio Europarra. -Euskararen historia: jatorria eta teoria nagusiak; lehen lekukotzak. - Lehen emakumezko eta gizonezko idazleak. -Espainiako hizkuntzen garapen soziohistorikoa. -Euskara batuaren arauak. -Euskararen eta espainieraren barietate dialektalen ezaugarriarik adierazgarrienak.

¹ Taulako informazioa Oinarrizko Hezkuntzako curriculumaren zirriborrotik bere horretan hartuta dago.

	<p>enpatikoa eta errespetuzkoa erakutsiz, gogoeta interlinguistikoa errazteko, hizkuntza-aurreiritziei aurre egiteko, aniztasuna aberastasun-iturri gisa onartzeko eta euskararen erabileraren aldeko portaera asertiboak sustatzeko</p>	<p>kontrastatuz, eta ezaugarri soziolektaletatik eta erregistro-ezaugarrietatik bereiziz, ahozko eta idatzizko adierazpenetan eta adierazpen multimodaletan.</p> <p>1.2. Hizkuntza-aurreiritziak eta estereotipoak identifikatzea eta baztertzea, kultura-, hizkuntza- eta dialekto- aberastasuna errespetatuz eta baloratuz, ingurune hizkuntza-aniztasunaren analititik abiatuta (digitala barne) eta hizkuntzen arteko kontaktuaren inguruko esploraziotik eta gogoetatik eta hizkuntza-eskubide indibidualen eta kolektiboen ikerketaren inguruko esploraziotik eta gogoetatik abiatuta.</p> <p>1.3. Euskal Autonomia Erkidegoko hizkuntza-errealitatearen ezaugarriak identifikatzea oinarrizko ezagutza soziolinguistikoen bidez, eta euskararen aldeko hizkuntza-ohitura eta portaera asertiboak eta enpatikoak hartzea, euskararen erabilera</p>	<p>-Euskararen eta euskara batuaren bariedade nagusien ezaugarriak alderatzeko patrioiak, baita espainierarenak ere, norberaren lurraldeei arreta berezia eskainiz.</p> <p>- Bariedade dialektalen berezko ezaugarrien (fonikoak, gramatikalak, lexikoak eta semantikoak) eta soziolektoen eta erregistroen arteko aldeak.</p> <p>-Bizitza pertsonaleko eta eskola- eta gizarte-bizitzako askotariko esparruetan euskararen erabileraren aldeko interesa, ekimena eta portaera proaktiboa.</p> <p>-Gogoeta interlinguistikoa garatzeko estrategiak.</p> <p>Hizkuntzen arteko kontaktuaren fenomenoak: elebitasuna, maileguak, interferentziak.</p> <p>-Hizkuntza-diglosia eta dialekto-diglosia.</p> <p>- Hizkuntzen estatusa: gutxiengoaren hizkuntzak, hizkuntza gutxituak eta desagertzeko arriskuan dauden hizkuntzak.</p> <p>-Hizkuntza-eskubideak eta legeetan eta adierazpen instituzionaletan duten isla (UNESCO, Europako Kontseilua, Euskararen Erabilera Normalizatzeko Legea...).</p> <p>-Hizkuntzen eta kulturen defentsarako eta garapenerako erakundeak: Eusko Ikaskuntza, Euskaltzaindia, Euskariana, Euskal Kultur Erakundea (EKE), RAE, ASALE (gaztelaniaren akademien elkartea), Cervantes Institutua...</p> <p>Hizkuntza-normalizazioaren aldeko herri-mugimenduak eta erakundeak: euskal hezkuntza-sistema, euskarazko hedabideak,</p>
--	--	--	--

		<p>analogikoaren eta digitalaren aldeko jarrera proaktiboa eta afektiboa erakutsiz eskola- eta gizarte-bizitzaren zenbait esparrutan, baita ikastetxean eta ingurunean garatzen diren euskararen normalizazioarekin eta euskal kulturaren transmisioarekin eta sormenarekin lotzen diren ekimenetan ere.</p> <p>1.4. Hizkuntzen funtzionamenduz eta erabileraz jabetzea, eta gogoeta interlinguistikoak gero eta modu autonomoagoan erabiltzea, hizkuntzak ikasteko eta beren komunikazio-kompetentzia garatzeko, hizkuntzen zenbait ezaugarri alderatuz.</p>	<p>euskaltegiak, Euskaltzaleen Topagunea...</p> <p>-Hizkuntza-aurreiritziak eta estereotipoak miatzeko eta eztabaidatzeko estrategiak, hizkuntzaren erabilera sexista barne, eta horiek saihesteko moduak.</p>
<p>HKK2, KE2, KD2, KD3, STEM4, KPSII4, KPSII5, HK3</p>	<p>2. Ahozko testuak eta testu multimodalak ulertzea eta interpretatzea, zentzu orokorra eta informaziorik garrantzitsuena bilduz, igorlearen ikuspuntua eta asmoa identifikatuz eta fidagarritasuna, forma eta edukia baloratuz, ezagutza</p>	<p>2.1. Zenbait esparrutakoak diren eta nolabaiteko konplexutasuna duten ahozko testuen eta testu multimodalen zentzu orokorra eta egitura interpretatzea, baita komunikazio-premien araberako eta igorlearen asmoaren araberako informaziorik garrantzitsuena ere, elementu ez-esplizituak ondorioztatzen lagunduko dioten</p>	<p>Testua eta testuingurua.</p> <p>-Komunikazio-egitatearen osagaien nozioak.</p> <p>-Gaia.</p> <p>Testuaren asmoa.</p> <p>-Oinarrizko testu-sekuentziak, arreta berezia eskainiz narrazioari, deskripzioari, elkarrizketari eta azalpenari.</p> <p>-Testuaren propietateak: koherentzia, kohesioa eta egokitasuna. Oinarrizko nozioak.</p> <p>-Diskurtso-generoak, esparru pertsonalekoak (solasaldia, mezu elektronikoa...), hezkuntza-esparrukoak (dekalogoak, ahozko</p>

	<p>eraikitze, iritzia osatzeko eta gozameneko eta aisiarako aukerak zabaltzeko.</p>	<p>ahozko ulermen-arazoak ebazteko estrategia egokiak erabiliz eta kodeen arteko elkarreragina aztertuz.</p> <p>2.2. Nolabaiteko konplexutasuna duten ahozko testuen eta testu multimodalen forma eta edukia baloratzea, erregistroaren eta erabilitako kanalaren kalitatea, fidagarritasuna eta egokitasuna eta erabilitako komunikazio-prozeduren eraginkortasuna ebaluatuz.</p> <p>2.3 Euskal kulturaren aberastasuna ezagutzea eta baloratzea, ahozko arte-eta kultura-adierazpenen bidez.</p>	<p>azalpena...) eta esparru sozialekoak, barnean direla erakundeena, sare sozialenak eta hedabideena (informazio-liburuxka, bandoa...).</p> <p>-Ahozkotasunarekin lotzen diren euskal kulturako tradizioak, hala nola: Santa Ageda, Olentzero edo inauteriak.</p> <p>-Euskal zinema eta antzerkia. Euskal musika-ondare tradizionalaren eta garaikidearen erreferentziako abestiak.</p> <p>-Testu ikoniko eta hitzekoen eta multimodalen irudia eta elementu paratestualak aztertze jarraibideak.</p> <p>-Hizkuntzaren eta irudien erabilera ez-sexistarako jarraibideak.</p> <p>Ulermena.</p> <p>-Ahozko eta irakurriaren ulermenerako estrategiak. Testuaren zentzu globala eta zatien arteko erlazioa, informazio garrantzitsuaren aukeraketa eta atxikipena. Igorlearen asmoa, testuinguru-elementu esplizituetatik abiatuta.</p> <p>-Testuetan hitzeko hizkuntzaren eta hitzik gabekoaren eta ikonikoaren erabilera diskriminatzaileak hautemateko estrategiak.</p> <p>-Generoen testu-egiturak ezagutzeko jarraibideak.</p> <p>-Ahozko eta idatzizko testuen eta testu multimodalen forma eta edukia aztertze eta baloratzeko jarraibideak.</p> <p>Euskal tradizioko atsotitzak eta esaerak ezagutzeko eta ulertzeko jarraibideak.</p>
--	---	--	---

<p>HKK1, HKK3, HKK5, KE2, STEM4, KD2, KD3, KPSII1, KPSII3, KPSII4, KPSII5, HK2, EK1.</p>	<p>3. Ahozko testuak eta testu multimodalak jariakortasunez, koherentziaz, kohesioz eta erregistro egokiz sortzea, diskurtso-generoen berezko konbentzioei jarraituz, eta ahozko elkarreraginetan jarrera kooperatiboz eta errespetuz parte hartzea, bai ezagutzak eraikitzeke eta lotura pertsonalak ezartzeko, bai gizarte-testuinguruetan modu aktiboan eta informatuta parte hartzeko.</p>	<p>3.1. Zenbait plangintza-mailatako interes pertsonaleko eta gizarte-, hezkuntza- eta lanbide-intereseko gaiei buruzko nolabaiteko konplexutasuna eta luzera duten ahozko azalpenak eta argudioak diseinatzea eta egitea, diskurtso-generoen berezko konbentzioei jarraikiz, jariakortasunez, koherentziaz, kohesioz eta erregistro egokiz, zenbait euskarritan, eta hitzeko baliabideak eta hitzik gabekoak eraginkortasunez erabiliz.</p> <p>3.2. Modu aktibo eta egokian parte hartzea ahozko elkarreragin informaletan, talde-lanean eta elkarrizketa moduko ahozko egoera formaletan, errespetuzko entzute aktiboko jarreraz eta elkarrizketa-kooperazioko eta hizkuntza-kortesiako estrategiez, betiere erabilera diskriminatzaile eta sexistak saihestuz, baita ingurune digitaletan ere.</p>	<p>3. Produkzioa.</p> <p>-Informazioa bilatzearekin, testuinguruan kokatzearekin eta berrikustearekin lotzen diren ahozko produkzio formalerako eta sormenezko produkziarako estrategiak. Ikus-entzuleriaren eta esposizio-denboraren araberrako egokitzapena. Hitzekoak ez diren elementuak. Ahozkotasun formalaren diskurtso- eta hizkuntza-ezaugarriak.</p> <p>-Testuen idatzizko produkziarako estrategiak, plangintzarekin, idazketarekin, berrikuspenarekin, edizioarekin eta hainbat euskarritan hedatzearekin lotzen direnak.</p> <p>- Generoen ereduak erreproduzitzeko patrioiak.</p> <p>-Pentsamendua antolatzeke eta emozioak kudeatzeko idazketaren erabilerak: idazketa automatikoa, oharra hartzea, eskemak, buru-mapak, antolatzaile grafikoak, definizioak, laburpenak, eta abar.</p> <p>-Zuzentasun lexikoa.</p>
<p>HKK2, HKK3, HKK5, KE2, STEM4, KD1,</p>	<p>4. Testu idatziak ulertzea, interpretatzea eta baloratzea, zentzu</p>	<p>4.1. Zenbait irakurketa-asmori erantzuten dioten eta nolabaiteko zailtasuna duten testu</p>	<p>4. Elkarreragina.</p> <p>-Ahozko eta idatzizko elkarreragin informalerako estrategiak, testuinguru analogikoetan eta</p>

<p>KPSII4, KPSII5, HK3.</p>	<p>kritikoan eta irakurtzeko zenbait xedez, zentzu orokorra eta ideia nagusiak eta bigarren mailakoak ezagutzuz, igorlearen asmoa identifikatuz, edukiari eta formari buruzko gogoeta eginez eta kalitatea eta fidagarritasuna ebaluatuz, ezagutza eraikitzeke eta askotariko komunikazio-premiei eta -interesei erantzuteko</p>	<p>idatzien eta multimodalen zentzu orokorra, egitura, informaziorik garrantzitsuena eta igorlearen asmoa ulertzea eta interpretatzea, irakurriaren ulermenaren arazoak ebazteko estrategia eta trebetasun emozional eta kognitibo egokiak erabiliz eta behar diren inferentziak eginez.</p> <p>4.2. Esparru akademikoko, publiko edo sozialeko, eta esparru pertsonaleko eta/edo etxeko esparruko testu errazen forma eta edukia baloratzea, horien kalitatea, erabilitako kanalaren fidagarritasuna eta egokitasuna eta erabilitako komunikazio-prozeduren eraginkortasuna ebaluatuz.</p>	<p>digitaletan: hitza hartzeko eta hitza uzteko estrategiak.</p> <p>-Elkarrizketa-kooperazioa eta hizkuntza-kortesia; entzute aktiboa, asertibotasuna eta gatazken elkarrizketa bidezko kudeaketa, genero-ikuspegitik.</p>
<p>HKK1, HKK3, HKK5, KE2, STEM4, KD2, KD3, KPSII4, KPSII5, HK2, EK1.</p>	<p>5. Testu idatzi eta multimodal koherenteak, kohesionatuak, egokiak eta zuzenak sortzea, hautatutako diskurtso-generoaren berezko</p>	<p>5.1. Nolabaiteko konplexutasuna eta luzera duten testu idatzi eta multimodalen idazketa formala eta sormenezkoa planifikatzea, komunikazio-egoera, hartzailea, helburua eta kanala kontuan hartuz;</p>	<p>5. Informazio-alfabetatzea.</p> <p>-Informazioa bilatu eta hautatzeko estrategiak, fidagarritasun-, kalitate- eta egokitasun-irizpideak erabiliz; informazioaren azterketa, balorazioa, berrantolaketa eta sintesia —norberaren eskemetan— eta informazioa ezagutza bihurtzeko estrategiak;</p>

	<p>konbentzioei jarraituz, ezagutza eraikitzeke eta komunikazio-eskaera zehatzei modu informatuan, eraginkortasunez eta sormenez erantzuteko.</p>	<p>zirriborroak idaztea eta berrikustea, berdin arteko elkarrizketaren eta kontsulta-tresnen laguntzaz; eta azken testu koherente eta kohesionatua aurkeztea, erabilera sexista eta diskriminatzailearik gabeko erregistro egokiz.</p> <p>5.2. Testuak aberasteko prozedurak txertatzea, diskurtso-, hizkuntza- eta estilo-alderdiak kontuan hartuz, zehaztasun lexikoz, zuzentasun ortografiko eta gramatikalez, eta erabilera sexista eta diskriminatzailearik gabeko hizkuntza librez, bai ingurune analogikoetan bai digitaletan.</p>	<p>sormenezko komunikazioa eta hedapena, jabetza intelektuala errespetatzen duena.</p> <p>-Eskola-proiektuak egiteko plataforma birtualak modu seguruan eta sormenez erabiltzeko jarraibideak, horien erabilera baztertzalea eta sexista identifikatuz.</p> <p>-Etiketa digitala eta desinformazio-arriskuak. Pentsamendu kritikoko estrategiak, manipulazioa eta pribatutasunaren urraketa saihesteko.</p>
<p>HKK3, KD1, KD2, KD3, KD4, KPSII4, KPSII5, HK2, EK3.</p>	<p>6. Hainbat iturritako informazioa gero eta modu autonomoagoan hautatzea eta kontrastatzea, informazio horren fidagarritasuna eta egokitasuna irakurketa-helburuen arabera ebaluatuz eta manipulazio- eta desinformazio-arriskuak saihestuz; eta informazio hori</p>	<p>6.1. Zenbait iturritako informazioa gero eta modu autonomoagoan aurkitzea, hautatzea eta kontrastatzea, informazio horren fidagarritasuna eta egokitasuna irakurketa-helburuen arabera kalibratuz; eta informazio hori antolatzea eta norberaren eskemetan integratzea, eta modu sortzailean berregitea eta komunikatzea, ikuspuntu kritikoa hartuz eta jabetza</p>	<p>6. Hizkuntza-elementuen onarpena eta diskurtso-erabilera.</p> <p>-Hizkuntza-baliabideak identifikatzeko, ezaugarritzeko eta erabilera gogoetatsua egiteko estrategiak, igorleak ahozko eta idatzizko testuetan eta testu multimodaletan duen inplikazioa erakusteko: deixi-formak (pertsonala, denborazkoa eta espaziala) eta oinarrizko modalizazio-prozedurak.</p> <p>-Perpauaren osagaiak lotzeko euskararen berezko hizkuntza-elementuak (aditz-komunztadura eta deklinabidea).</p>

	<p>ezagutza bihurtzea eta komunikatzea, ikuspuntu kritikoa eta pertsonala hartuz eta, aldi berean, jabetza intelektuala errespetatuz.</p>	<p>intelektualaren printzipioak errespetatuz.</p> <p>6.2. Interes akademiko, pertsonal, sozial edo ekosozialeko askotariko gaiei buruzko nolabaiteko hedaturako ikerketan lanak gero eta autonomia handiagoz eta zenbait euskarritan egitea, hautatutako informaziotik abiatuz.</p> <p>6.3. Teknologia digitalen erabilera kritiko, seguru, iraunkor eta osasungarriko ohiturak gero eta autonomia handiagoz hartzea, informazioaren bilaketari, egile-eskubideen errespetuari eta komunikazioari dagokienez, harreman pertsonalen eta bizikidetzaren positiboaren eraikuntzan kolaboratuz, baita testuinguru digitaletan ere.</p> <p>7. konpetentzia espezifikoa</p> <p>7.1. Aurrez egindako hautaketatik abiatuta, testuak aukeratzea eta irakurtzea, norberaren gustuei, interesei eta premiei jarraikiz, eta irakurle-ibilbidea eta irakurketaren</p>	<p>-Erregistroa komunikazio-egoerara egokitze hiza-kuntza-baliabideak.</p> <p>-Hiza-kuntzen erabilera ez-diskriminatzaileako hiza-kuntza-baliabideak.</p> <p>-Kohesio-mekanismoak identifikatzeko, ezaugarritzeko eta erabilera gogoetatsua egiteko estrategiak. Denbora, azalpen, ordena, kontraste eta abarrerako diskurtso-markatzaileak. Barne-erreferentzia-ko mekanismo gramatikalak (ordezkatzeko pronominalak) eta lexikoak (errepikapenak, sinonimoak, hiperonimoak eta elipsiak).</p> <p>-Testuetan aditz-formak ezagutzeko eta koherentzia-z erabiltzeko jarraibideak.</p> <p>Narrazioko iraganaldiko denborak. Kontakizun-diskurtsoko denbora-korrelazioa.</p> <p>- Testuen hiza-kuntza-zuzentasuna eta berrikuspen ortografikoa eta gramatika. Euskarri analogikoko edo digitaletako hiztegien, kontsulta-eskuliburu- eta zuzentzaile ortografikoen erabilera.</p> <p>- Oinarrizko puntuazio-zeinuak, idatzizko testua antolatze-ko mekanismo gisa. Esanahiarekin duten lotura.</p> <p>7. Lanaren antolaketa eta ikaskuntzari buruzko gogoeta.</p> <p>-Banakako eta taldeko lana testuinguru analogiko eta digitaletan antolatze-ko estrategiak, genero-ikuspegiarekin.</p> <p>-Autokonfiantza, ekimena eta ikaskuntzari buruzko gogoeta. Errorea prozesuaren parte gisa eta hobetzeko aukera gisa.</p>
--	---	---	---

		<p>esperientzia jasota utziz.</p> <p>7.2. Norberaren gustuen, interesen eta premien arabera hautatutako testuak modu autonomoan irakurtzea, eta norberaren irakurketa-eta kultura-ibilbidearen aurrerapena jasota uztea, irakurketak hautatzeko irizpideak, literatura-kulturara iristeko moduak eta irakurketa-esperientzia azalduz.</p> <p>7.3. Askotariko euskarritako irakurketaren esperientzia partekatzea, ezagutza, gozamen eta garapen pertsonalerako iturri gisa baloratuz eta obraren zentzua norberaren esperientzia pertsonalarekin eta irakurlearekin erlazionatuz.</p>	<p>–Estrategia kooperatibo errazak, eta talde-lanean esleitutako banako erantzukizunak bere gain hartzeko estrategiak.</p> <p>–Autoebaluaziorako, autorregulaziorako eta koebaluaziorako erabili ohi diren estrategia eta tresna analogikoak eta digitalak, eta kooperatiboak eta indibidualak.</p>
--	--	---	---

4. SAIOEN GIDA, IRAKASLEENTZAT

1. SAIOA. HIZKUNTZA-ANIZTASUNA

Ariketak

1. ariketa. Erantzun galderari.

- Zeri esaten diogu hizkuntza? Eta dialektoa? Ikusi [bideoa](#).
- Zure ustez, zenbat hizkuntza hitz egiten dira munduan?
- Zenbat hizkuntza ezagutzen dituzu?
- Zer dakizu zeinu-hizkuntzei buruz?
- Zenbat hizkuntzatan mintzo zara?
(Erantzun librea).

2. ariketa. Azaldu mapa.



Irakaslearen azalpena

- Munduan 7.100 hizkuntza inguru daude eta 200 estatu. Beraz, nazio bakoitzean dauden **hizkuntza ofizialez gain**, bat baino gehiago izan daitezke herri bateko hizkuntzak.
- Ahozko eta idatzizko hizkuntzez gain, zeinu-hizkuntzak ere badaude; komunitate bakoitzak, oro har, berezko zeinu-hizkuntza du, eta, hortaz, herrialde bakoitzak

zeinu-hizkuntza bat edo batzuk ditu. Zeinu-hizkuntzen kopuru zehatza ez dakigun arren, *Ethnologue* aldizkariak 157 zeinu-hizkuntza zerrendatzen ditu.

- Hizkuntza batzuek elkarren antza dute, jatorri bera dutelako. Beraz, **hizkuntza-familia** bat osatzen dute. Munduko hizkuntzak 141 familiatan daude banatuta.

Adibidez:

EUROPAKO HIZKUNTZAK

1. INDOEUROPERA² (adarrak eta hizkuntzak)

1.1 GERMANIARRAK (alemana, ingelesa, daniera, suediera)

1.2 ERROMANIKOAK (portugesak, gaztelania, galegoa, katalana, okzitaniera, frantsesa)

1.3 ESLAVIARRAK (poloniera, txekiera, errusiera, bulgariera)

1.4 BALTIKOAK (lituaniera, letoniera)

1.5 ZELTAK (galesera, bretoiera, irlandera, eskoziera)

1.6 HIZKUNTZA GREKOA

2. URALO-ALTAIKOA

2.1 URALIKOA (laponiera, hungariera, suomiera, estoniera)

2.2 ALTAIKOA (turkiera)

3. EUSKARA

Euskararen jatorria ezezaguna da: hainbat ikerketa egin ostean, euskara hizkuntza isolatua dela ondorioztatu dute hizkuntzalariek. Irulegiko aztarnategian topatutako eskuak bide berria ireki du euskararen historia ikertzeko. Ikusi bideoa.

4. ZEINU-HIZKUNTZAK

Ahozko hizkuntzak bezain zaharrak dira zeinu-hizkuntzak, eta zaharragoak ere izan litezke.

² Eskema honetan Europako hizkuntzen adarrak letra larriz adierazi dira, eta hizkuntzak letra xehez eta parentesien artean.

Ariketak

3. ariketa. Jolastu. (Ikasleek zeinu-hizkuntzako hitzak kontzeptuekin lotu beharko dituzte; horretarako, 5 minutuko tartea izango dute. Ondoren, plataforman bertan erantzunak ikusi ahalko dituzte)
4. ariketa. Sartu webgunean eta erantzun galderei.
 - **Zein da zeinu-hizkuntzen jatorria, eta zer-nolako lekukotasunak daude?**

Ahozko hizkuntzek besteko antzinatasuna daukate. Hala ere, ez dute aurkitu XVII. mendearen aurretiko zeinu-hizkuntzei buruzko agiririk. Bestalde, zeinu-hizkuntzen hiztun gehienak gorra diren arren, bestelako lekukotasunak ere aztertu dituzte. Adibidez, Ipar Amerikako eskualde batean zeinu-hizkuntza erabiltzen zuten zenbait etniaren arteko komunikazioan.
 - **Zer da zeinu-hizkuntza?**

Zeinu-hizkuntza adierazpen-hizkuntza naturala da, keinu-espaziozko konfigurazioa eta begi bitarteko antzematea oinarri dituen.
 - **Posiblea al da zeinu-hizkuntza ama-hizkuntzatzat izatea? Zeintzuk dira zeinu-hizkuntzaren barneratze-prozesuan agertzen diren faseak?**

Bai. Zizakadura eta hitz bakarraren garaia.
 - **Ba al daude zeinu-hizkuntzak ahozko hizkuntzen mende?**

Ez.
 - **Zer da alfabeto daktilologikoa?**

Esku bidezko alfabetoa.
5. ariketa. Ikusi zeinu-hizkuntzei buruzko bideoa.
6. ariketa. Ikusi bideoa eta erantzun *Genially* aplikazioan galdera hauei.

1. Zenbat hizkuntza daude munduan?

- a) 7.139
- b) 1.000
- c) 6.000

2. Hizkuntzen % 40k...

- a) 1.000 hiztun baino gehiago dute.
- b) 1.000 hiztun baino gutxiago dute.
- c) 200 hiztun baino gutxiago dute.

3. Zenbat hizkuntza hitz egiten dira Euskal Herrian?

- a) 100 inguru
- b) 2
- c) 200 inguru

4. Hungariera hizkuntza... da.

- a) indoeuroparra
- b) altaikoa
- c) uralikoa

5. Hizkuntza zeltikoak indoeuroperatik datoz.

- a) Zuzena
- b) Okerra

6. Zein da munduko hizkuntzarik erabiliena?

- a) Euskara
- b) Txinera
- c) Ingelesa

7. Zenbat hiztun ditu euskarak?

- a) 751.700
- b) 2.000

c) 2.000.000

8. Hizkuntza-ukipena...

a) beste hizkuntza batetik hartutako hitza da.

b) gizarte berean mintzatzen diren hizkuntzak dira.

c) gizarte berean hizkuntza bat baino gehiago hitz egiten direnean hizkuntza horien artean sortzen den erlazioa da.

9. Ama-hizkuntza...

a) haurtzaroan haurrak gurasoengandik jaso duen hizkuntza da.

b) hiztun asko dituen hizkuntza da.

c) hiztun gutxi dituen hizkuntza da.

10. Minorizaturik dagoen hizkuntza bat egoera horretatik atera eta gizarte-esparru eta funtzio guztietara hedatzeko prozesuari esaten zaio.

a) Diglosia

b) Hizkuntza-transmisioa

c) Hizkuntza-normalizazioa

2. SAIOA. HIZKUNTZA-UKIPENA

Ariketak

1. ariketa. Aztertu loturako [irudia](#) eta erantzun.

Nahasten al dituzu zeuk ere hizkuntzak? Noiz? (Erantzun librea).

Irakaslearen azalpena

HIZKUNTZA-UKIPENA

- **Definizioa**

Munduko hizkuntzak ez daude isolatuta, ukipenean daude. Hizkuntza-komunitateak (hizkuntza berean mintzatzen diren pertsonen multzoa) dira kontaktuan daudenak; beraz, **hizkuntzak hiztun-elebidunen bidez elkartzen edo nahasten dira**. Esate baterako, euskara gaztelaniarekin eta frantsesarekin dago kontaktuan.

- **Ezaugarriak**

Hizkuntza-komunitate biren artean ukipena egon dadin, hiztunen multzo batek (handia edo txikia) elebiduna izan beharko du.

HIZTUN ELEBIDUNAK

- **Definizioa**

Elebidun esan ohi zaio bi hizkuntzatan aritzeko gaitasuna duen hiztunari, gaitasun-maila gorabehera.

- **Ezaugarriak**

Hizkuntza bakarra erabiltzen duten hiztun gutxi daude munduan, eta, hala izanda ere, hizkuntza-barietateak erabiltzen dituzte. Adibidez, **dialektoak** erabiltzen dituzte, hots, hiztunek lurraldearen arabera dituzten hizkuntza-aldaerak; edo **soziolektoa** darabilte, hau da, gizarte-klase edo talde bateko hiztunek duten hizkuntza-aldaera. Horren adibide dira, hain zuzen, gazte-hizkera edo lanbide jakin bateko hizkera teknikoa.

Lehen hizkuntza ezberdina duten bi hiztunek elkarrekin mintzatu nahi dutenean bietako bat hautatuko dute. Bietako batek ez badu bestearena ulertzen, baliteke komunikazio-hizkuntza bat erabiltzea (ingelesa izan daiteke). Baina elkar ulertu nahi horretan,

komunikazio-hizkuntzarik ez badago, **pidginak** sortzen dira. Pidginak ez dira inongo hiztunen ama-hizkuntzak; pertsonak elkarrekin komunikatzeko sortzen dituzten tresnak dira eta baliabide gutxi dituzte.–Batuetan, fusio horretatik hizkuntzak sortzen dira: **kreolerak**, adibidez, europar hizkuntzen eta esklaboen hizkuntzen fusiotik sortutakoak.

Euskara-islandiera pidgina: Ternuara joan aurretik, euskal arrantzaleek Islandian harrapatzen zituzten baleak. Hango herritarrekin tratu komertzialak izateko, islandieraren eta euskararen arteko hizkera garatu zuten. Pidgin horren erreferentzia ugari topatu dira.

Ariketak

2. ariketa. Saiatu asmatzen euskara-islandiera pidgineko esaldi hauen esanahia.

- **For ju mala gissuna.** Gizon gaiztoa zara.
- **Sumbatt galsardia for?** Zenbat galtzerdiagatik?
- **Presenta for mi locaria.** Eman niri lokarriak.
- **For mi presenta for ju biskusa eta sagarduna.** Bixkotxa eta sagardoa emango dizkizut.
- **Presenta for mi berrua usnia eta berria burra.** Emadazu esne beroa eta gurina berria.
- **Zer travala for ju?** Zertan egiten duzu lan?
- **Ungetorre.** Ongi etorri.
- **Gianzu caca.** Janzazu kaka.

Irakaslearen azalpena

DIGLOSIA

- **DEFINIZIOA**

Gizarte-egoera da. Komunitate batean bi hizkuntza edo bi hizkuntza-barrietate erabiltzea da. Hizkuntza edo barrietate horiek esparru eta funtzio desberdinetarako erabiltzen dira: bata, esparru formaletarako; bestea, esparru ez-formaletarako.

- **EZAUGARRIAK**

Gehienetan egoera diglosikoa desorekatua izaten da, funtzioen banaketa bidezkoa ez delako. Egoera diglosikoa dinamikoa da; izan ere, denboran zehar hizkuntza menderatzaileak hainbat esparru bereganatzen ditu.

José María Sánchez Carrión “Txepetx” soziolinguistak 3 diglosia-maila bereizi zituen:

- 1. mailakoa: **erdi diglosia**. Adibidez, literatura-hizkuntza edo hizkuntza jaso eta kaleko hizkuntza bereizten direnean gertatzen da.
- 2. mailakoa: **diglosia partziala** edo funtzionala. Diglosia-maila hori danieraren eta alemanaren artean gertatzen da, besteak beste. Hizkuntza

batek herrialde bien arteko mugaren alde batean funtzio guztiak ez baditu ere, mugaren beste aldean baditu.

- **3. mailakoa:** erabateko diglosia edo lurraldekoa. Euskal Herrikoa: euskarak ez ditu funtzio guztiak, baina gaztelaniak eta frantsesak, bai (bai euskararen lurraldean, baita kanpoan ere). Hizkuntza menderatzailearen eraginez, herri-hizkuntza prozesuaren amaieran galdu egiten da.

HIZKUNTZA-UKIPENAREN ONDORIO SOZIALAK

- **Interferentzia fonetikoak:** “z” euskaraz gaztelaniaz bezala ahoskatzea: *prozesu* → *procesu*
- **Interferentzia gramatikalak:** hitzen ordena aldatzea. Adib: *leer ya hice* (ordena).
- **Interferentzia lexikala:** gaztelaniazko hitzen kalkoak euskaran txertatzea edo alderantziz.

Interferentzia bat sozialki onartua denean hedatzen da beste hizkuntzan.

Ariketak

3. ariketa. Irakurri esaldiak eta esan zein motatako interferentzia dagoen.

Prioridad de peatones <i>Oinezkoen lehentasuna</i>	Gramatikala
Sala de curas <i>Apaizen gela</i>	Lexikala
Aviso: recién pintado <i>Oharra: Margotutako recién-a</i>	Lexikala
Cuidados médicos intensivos <i>Ardura mediku intentsiboak</i>	Gramatikala
Melón superior <i>Goiko meloia</i>	Lexikala
DVD reproductor <i>DVD ugalketakoa</i>	Lexikala

3. SAIOA. HIZKUNTZAREN TAMAINA

Ariketak

1. **ariketa. Ikusi bideo labur [hau](#).**
2. **ariketa. Erantzun galderei eta hausnartu.**
 - Tamaina bera al daukate hizkuntza guztiek? [Ez](#)
 - Zein da munduan gehien hitz egiten den hizkuntza? [Txinera](#)
 - Arakatu [mapa](#).
 - Zergatik erabiltzen dira hizkuntza batzuk besteak baino gehiago? Zer arrazoi bururatzen zaizkizue? ([Erantzun librea](#). Kontzeptuak aztertu ostean, [galdetu berriro](#)).
3. **ariketa. Saiatu kontzeptu hauei buruzko azalpenak idatziz ematen, binaka.**
 - Hizkuntza gutxitua
 - Hizkuntza-normalizazioa
 - Hitzun-komunitatea
 - Ama-hizkuntza
 - Hizkuntza funtzionala
4. **ariketa. Egin <https://app.genial.ly/editor/632d6d35b8dcb00013cd2d32> loturan dagoen zuzena/okerra ariketa. Horretarako, konparatu zuen definizioak bertan ematen direnekin:**
 - AMA-HIZKUNTZA: haurtzaroan ikasitako lehen hizkuntza da. [Zuzena](#). Lehen hizkuntza da, [haurrak etxean gurasoengandik ikasitakoa](#).
 - HIZKUNTZA GUTXITUA: hitzun asko dituen hizkuntza da. [Okerra](#). Hitzun gutxi dituen hizkuntza da.
 - HIZTUN-KOMUNITATEA/HIZKUNTZA-KOMUNITATEA: hizkuntza berean mintzo diren pertsonen multzoa. [Zuzena](#). Hitzun-komunitate batek hainbat baldintza bete behar ditu, nahitaez, hizkuntza-komunitate izateko:
 - Ingurune eta lurraldetasun politiko, juridiko edo sozial jakin batean kokatuta egon behar du.
 - Hitzun-multzo bat izan behar da. Hitzun-multzo horrek erabili egin behar du delako hizkuntza. Jakitea ez da nahikoa (adibidez, latina dakitenek ez dute

hizkuntza-komunitaterik osatzen, testuinguru jakinetan salbu ez delako erabiltzen).

- Hiztun-multzo horrek jarrera eta ekintza komun batzuk izan behar ditu (adibidez, Euskal Herrian dauden hiru islandiarrek ez lukete osatuko hizkuntza-komunitaterik, elkarrekin jarduten ez badute).
- **HIZKUNTZA-TRANSMISIOA:** komunitate bateko hiztunek seme-alabei hizkuntza EZ transmititzea. Okerra. Komunitate bateko hiztunek seme-alabei hizkuntza transmititzea, horren bitartez kultura baten jarraipena ziurtatzeko.
- **HIZKUNTZA-NORMALIZAZIOA:** egoera minorizatuan dagoen hizkuntza bat gizarte-esparru guztietara hedatzeko prozesua. Zuzena. Euskararen normalizazioa euskara berreskuratzea bultzatzeko eta haren erabilera sustatzeko, galbidean dagoen hizkuntza gutxitua izatetik hizkuntza normaltasunez erabilia eta transmititua izatera pasa dadin.

4. SAIOA. HIZKUNTZAREN FUNTZIO SOZIALAK

Irakaslearen azalpena

Hizkuntzak funtzio-multzo bat dauka, gizarte jakin batean errealitatea eraikitzeko, komunikatzeko edo balio sinbolikoa bideratzeko. Hizkuntza-funtzio sozial horiek, hizkuntza bera bezala, hizkuntza-komunitateen arabera aldatzen dira. Hizkuntza batek betetzen dituen funtzio horiek zehazten dute zer leku edo posizio duen hizkuntza horrek gizarte edo egitura sozial jakin batean. Horregatik, hizkuntzaren funtzioak oso loturik daude kokapen, irudi eta legitimitate sozialarekin. Hizkuntza baten ospea edo prestigioa loturik doa hizkuntza horrek betetzen dituen funtzioei. Adibidez:

1. **Nazioarteko hizkuntza.** Herri askotako eliteek (kargudunek) erabiltzen duten hizkuntza da. Garai batean, European, latinak zeukan funtzio hori, eta, gaur egun, ingelesak dauka. Hizkuntza horiek leku askotara iristen dira, eta horrek kultura, ideiak eta ohiturak hedatzea ere badakar.
2. **Hizkuntza ofiziala.** Hizkuntza bat ofiziala izateak hiztun-komunitate horretako herritarrei hainbat eskubide aitortzea dakar: administrazioan, hezkuntzan, osasunean... erabili ahal izatea, esaterako. Euskal Herrian, euskararen estatus ofiziala oso ezberdina da lurraldearen arabera: EAEn ofiziala da, Nafarroan hiru eremu bereizten dira eta Iparraldean ez da hizkuntza ofiziala.

3. **Nazio-hizkuntza.** Lurralde jakin batean bizi diren pertsonen berezko nortasunaren ezaugarri den hizkuntza. Batzuetan, kolonizatutako lurraldeetan, nazio-hizkuntza inposatutako hizkuntza bat izaten da.
4. **Tokiko hizkuntza.** Historikoki lurralde batek berezkoa duen hizkuntza da.
5. **Zibilizazio-hizkuntza.** Zibilizazio batean nagusi den hizkuntza: mendebaldeko zibilizazioan, ingelesa.
6. **Kultura-hizkuntza.** Kultura-adierazpenak sortzeko eta zabaltzeko funtzioa betetzen duen hizkuntza da. Gaur egungo munduan, kulturalki beregaina izatea garrantzitsua da, hiztunak bere hizkuntzaz pertzepzio positiboa izan dezan; esate baterako, prentsan, irratan, telebistan zein sare sozialetan agertzea oso garrantzitsua da, hiztun-komunitateak hizkuntza modu positiboan baloratzeko.
7. **Komunikazio-hizkuntza.** Hitzunek egoera jakin batean elkar ulertzeko hautatzen duten hizkuntza; adibidez, ingelesa, edo pidgin- zein kreole-hizkuntza bat.
8. **Eskolatze-hizkuntza.** Ikasleen eta irakasleen artean erabiltzen den hizkuntza.
9. **Lan-hizkuntza.** Lan egiteko erabiltzen den hizkuntza. Esparru hori ingelesak bereganatu du, eta horrek munduan zehar hedatzen lagundu dio. Ingeleseko lexiko teknikoak prestigioa du (informatikan, adibidez).
10. **Familia-hizkuntza.** Familia-giroan erabiltzen dena; belaunaldiz belaunaldi transmititzen dena.

Kontaktuan dauden bi edo hiru hizkuntzen funtzioek banatuta egon behar dute; bestela, hizkuntza batek bestea ordezka dezake.

Ariketak

1. **ariketa.** Ikusi [bideoaren](#) zati bat, eta komentatu guztion artean.

Frankismo garaian euskaldunek eskolan jasaten zituzten tratu txarrei buruzkoa da.

Irakaslearen azalpena

Hizkuntzen heriotza hainbat arrazoiengatik gerta daiteke:

1. Hizkuntzaren transformazioa. Hizkuntzak ez dira estatikoak; aldatu egiten dira. Ukipenean dauden hizkuntzek etengabe eragiten diote elkarri, eta bateratu egiten dira, nolabait.
2. Hiztunik ez izatea. Hizkuntzaren transmisioa eteten denean, hizkuntza bateko azken hiztunak hiltzen direnean, hizkuntza hori haiekin batera galtzen da.
3. Hizkuntza-ordezkapena. Hizkuntza batek beste hizkuntza baten erabilera-eremuak eta funtzioak bereganatu ahala gertatzen den prozesua da. Hizkuntza menderatzaileak aurrera egiten jarraitzen badu, jatorrizko hizkuntza galdu egin daiteke.

Ordezkapenaren etapak. Diglosia, akulturazioa eta funtzioen galera.

Ariketak

2. **ariketa**. Taldeka, aztertu binetak eta artikuluak, eta hausnartu haietaz. Ondoren, azaldu gelakideei zer gertatzen den egokitu zaizkizuen artikulu edo binetetan. Horretarako, erabili ikasitako kontzeptuak.

1. taldea

- Irakurri [artikulua](#).

Erantzuna: egoera diglosikoaren ondorioz, hizkuntza-ordezkapena gertatu da. Belaunaldiz belaunaldiko transmisio falta dela eta, hizkuntza azken hiztunarekin batera galdu da. Hizkuntzari buruzko informazio zehatza, Wikipedian.

- Aztertu [irudia](#).

Erantzuna: euskarak eskolan duen funtzioa kritikatzeko da: edukiak euskaraz eman arren, ikasleek erdaraz egiten dute. Bestalde, agintariek ingelesa prestigiozko hizkuntzat hartzen dute.

2. taldea

- Irakurri [artikulua](#).

Erantzuna: nazio-hizkuntza, gaztelania, inposatua izan zen. Ez da modu naturalean gertatu hiztun guztiak galtzear egotea, bortxaz baizik.

Informazio gehigarria: hasieran, Caquetá eta Putumayo ibaien arteko eremuan kokatu ziren resigarroak, Kolonbian. Denboraren poderioz, Peruko lurraldera migratu zuten. Resigarroei buruzko informazio etnografiko eskasa dago, seguruenik, kautxuaren erauzketaren goraldi-garaian bertako populazioa asko gutxitu zelako.

- Aztertu [bineta](#).

Erantzuna: nazioarteko hizkuntzak tokiko hizkuntza ordezkatzeara.

3. taldea

- Irakurri [artikulua](#).

Erantzuna: hizkuntza transmititzea ezinbestekoa da hizkuntzari eusteko. Kasu honetan, euskalkiaren transmisioa egon ez den arren, euskara batua ezinbestekoa izan da hizkuntzaren jarraipena ziurtatzeko.

- Aztertu [irudiak](#).

Erantzuna: euskararen funtzioak murriztea, kasu honetan, administrazioan.

4. taldea

- Irakurri [artikulua](#).

Erantzuna: Iparraldean euskara ez da ofiziala, eta horrek hizkuntzaren normalizazioaren bidea zaildu egiten du, euskararen funtzioak ez baitaude ziurtatuta.

- Aztertu [irudiak](#).

Erantzuna: elebakarrak diren pertsonen beste hizkuntzekiko dituzten aurreiritziak salatzen ditu Zaldieroak.

5. SAIOA. HIZKUNTZAREN ZABALKUNDEA ETA HIZKUNTZARI EUSTEA

Ariketak

1. ariketa. Entzun Ruper Ordorikaren “Egin Kontu” kanta eta hausnartu esaten duenari buruz.

2. ariketa. Azaldu zer den hizkuntzaren jarraipena ziurtatzea:

Erantzuna: pertsona edo hizkuntza-komunitate batek bere hizkuntzari eustea.

3. ariketa. Irakurri beheko esaldiak eta esan, zuen ustez, nola eutsi dakioken hizkuntzari.

1. *Hizkuntza bat ez da galtzen ez dakitenek ikasten ez dutelako, dakitenek hitz egiten ez dutelako baizik. Joxean Artze*

2. *Hizkuntza bat ez da galtzen ez dakitenek ikasten ez dutelako, baizik eta dakitenak aspergarri hutsak direlako. Gaztezulo aldizkaria*

(Erantzun librea)

Irakaslearen azalpena

Hizkuntza baten ordezkapenak haren ordezkari beste bat erabiltzea dakar. Horrela, ordezkaria izan den hizkuntzak betetzen zituen erabilera-esparruak eta funtzioak beteko ditu hizkuntza berriak. Era horretan hedatzen dira hizkuntzak.

Hizkuntza baten zabalkundea bi irizpideren arabera neur daiteke: hiztun kopuruaren arabera edo dituen funtzioen arabera. Lehen irizpidea demografikoa da; bigarrena, aldiz, funtzionala.

- Irizpide demografikoa: eremu geografiko jakin bateko hiztunen kopurua neurtzen da, baita hiztunen proportzioa eta hedapena ere. (Hiztun kopurua neurtzeko, hizkuntzaren ezagutza eta erabilera-mailak ezberdinak direla kontuan hartu behar da).
- Hizkuntza-hedapenean eragiten duten faktoreak³:
 1. Geografikoa. Merkataritzarekin, kolonizazioarekin eta abarrekin lotuta.
 2. Hiri-faktorea. Hirietako biztanleek errazki ordezkaten dute hizkuntza.
 3. Faktore ekonomikoa. Harreman komertzialek hizkuntza-komunikazioa dute oinarri eta, beraz, hizkuntza komun bat, hala nola ingelesa.
 4. Faktore erlijiosoa. Hizkuntza batzuen hedapena erlijio jakin bati lotua izan da, hala nola arabiera islamari, sanskritoa hinduismoari, etab.
 5. Faktore militarra. Inbasio militarrekin batera ere hedatzen dira hizkuntzak. Kolonizazioak eragin handia izan du Europako hizkuntza batzuen hedapenean Asian, Afrikan edo Amerikan.
 6. Faktore politikoa. Hizkuntzen egoera zein geroa hautaketa politikoen menpe dago. Politikaren alor hori hizkuntza-politika deitzen da.
 7. Faktore kulturala (prestigioa). Hizkuntza bat prestigioduna izan daiteke, hizkuntza horretan idatzi den literaturarengatik edota zibilizazio-mota bati lotua izateagatik. Askotan, hizkuntza bat goi-mailako klase soziokulturalarena bada, prestigioa lortzen du; adibidez, kolonizatzaileen hizkuntzak.

Hizkuntza bat hedatzen denean, tokian tokiko hizkuntzen kalterako izaten da. Izan ere, komunikazio-hizkuntzak eta nazioarteko hizkuntzak hainbat herrialdetako hiztunek erabiltzen dituzte elkar ulertzeko. Horren ondorioz, batzuetan, beste hizkuntzei gehitzen zaizkie eta, beste batzuetan, ordezkatu egiten dituzte tokiko hizkuntzak.

Normalean, nazioarteko hizkuntzek ez dituzte besteak ordezkaten. Komunikazio-hizkuntzak gizarte bateko klase baten hizkuntza bilakatu daitezke, eliteenak, kolonizatzaileenak edo goiko klaseenak, adibidez.

³ Iturria: <https://aunamendi.eusko-ikaskuntza.eus/eu/hizkuntza-ukipena/ar-152063-137078/>

Zabalkundeak ez dira ordezkapen-prozesu naturalak; giza komunitateen eta gizakien ekintzen ondorioak dira. Hedatzen ari diren hizkuntzek (komunikazio-hizkuntza edo nazioarteko hizkuntza horiek, alegia) lekua izan dezakete hizkuntza ahulen ondoan, haiek ordezkatu barik. Hori bai, horretarako, ordezkatzeko-prozesuan dagoen hizkuntza-komunitateak borondate sendoa izan behar du bere hizkuntzari eusteko, eta hori lortzeko politika egokia jarri behar da indarrean.

HIZKUNTZA GUTXITUEN IRAUPENAREN EDO ORDEZKAPENAREN ERAGILEAK

Hizkuntza gutxitu baten kasuan, ordezkapenarekiko **erresistentzia-indarrak** indibidualak izaten dira, esate baterako, hizkuntza-leialtasuna edo belaunaldiz belaunaldiko ama-hizkuntzaren transmisioa. Kolektiboak ere izan daitezke: hizkuntza-plangintza edo hizkuntza-politika, adibidez.

- **Faktore demografikoa.** Gutxi mintzatu den hizkuntzak iraun dezake hitzunekek euren hizkuntzaren iraupena garrantzitsutzat baldin badute.
- **Babes instituzionala.** Sostengu instituzionala beharrezkoa da gutxitze-prozesua geldiarazteko; babes-eremu formal guztietan gauzatu daiteke: ekonomian, hezkuntzan, administrazioan, komunikabideetan, kulturean, etab.
- **Hizkuntzaren estatusa.** Beste hizkuntzen aldean duen lekua edo posizioa ere garrantzitsua da: estatus sozioekonomikoan, soziologikoan, prestigio soziokulturalean, etab.

Ariketak

4. ariketa. Ikusi estekatutako bideoak taldeka, eta erantzun galderei.

1. taldea: Italiako hizkuntza gutxituak

1. bideoa

2. bideoa

- **Italiako hizkuntza batzuk desagertzeaz daude. Zer arrazoi aipatzen ditu Mikik hori gertatzeko?**

Babes instituzional falta eta hizkuntzaren estatusa.

- **Zergatik ikasi zuen Mikik euskara?**

Arazoi politikoak, tokian tokiko hizkuntza erabiltzearen garrantzia aipatzen du. Gainera, arrazoi soziokulturalak ere aipatzen ditu; izan ere, berarentzat euskaraz sortutako produktu kulturalak oso erakargarriak dira.

2. taldea: kitxua (Bolivian)

1. bideoa

2. bideoa

- **Zergatik dago kitxua arriskuan?**

